



GURPIL

gainean



ENPATIA ETA KIROL EGOKITUARI BURUZKO PROIEKTUA

BSR - GAINDITZEA - INTEGRAZIOA -
INSPIRAZIOA

Hausnartu | Partekatu | Parte hartu

WWW.BILBAOBSRFUNDAZIOA.COM



JOLASTERA

ausartzen zara?



I. NIRE ZAPATAK UZTEN DIZKIZUT

I.1. Ahoz deskribatu ezazu bineta honetan agertzen den eszena.



I.2. Zer uste duzu sentitzen duela haurrak momentu horretan?




1.3. Guztion artean eraikiko dugu
"enpatiaren" definizioa!

"Enpatia" definitu ezazu:

1.4. Jarraian, bilatu "enpatiaren" definizio
zehatza hiztegian eta konpara ezazu idatzi
berri duzunarekin

■ Hiztegian agertzen den "enpatia"ren
definizioa:



Orain, enpatiari buruzko zenbait aipamen
irakurri eta komentatuko ditugu::

«Ez zait gizon hori
gustatzen. Hobeto
ezagutu behar dut».

Abraham Lincoln

”Munduko miserien eta gaizki-
ulertuen hiru laurdenak
amaitu egingo lirateke
pertsonak aurkarien
oinetakoetan jarriko balira
eta haien ikuspuntua ulertuko
balute”.

Mahatma Gandhi

«Beste baten azalean
egoten ikastea, bere begien
bidez ikusten ikastea,
horrela hasten da bakea.
Eta zure esku dago hori
gertatzea».

Barack Obama

«Bestearen lekuan jartzeko
gaitasuna adimenaren funtzio
garrantzitsuenetako bat da.
Gizakiaren heldutasun-maila
erakusten du».

A. Cury

II. ZER DAKIZU

ENPATIARI BURUZ?

2.1. Adierazi baieztapen hauek egiazkoak edo gezurrezkoak diren. Azaldu erantzunak ikaskideekin.

Empatia
praktika
ezazu...

EGIA

GEZURRA

1- Besteak hobeto ulertzen laguntzen digu. .

☐
☐

2- Gatazkak konpontzeak okerrera egiten du.


☐
☐

3- Lagun hurkoa gehiago epaitzea eragiten du.

☐
☐

4- Beste mundu eta ikuspuntu batzuk ezagutzeko aukera ematen digu.

☐
☐



EnPatia praktika ezazu...

EGIA

GEZURRA

5- Gure autoestimua hobetu dezake.

☐☐

6- Giro negatiboa indartzen du.

☐☐

7- Gure adimen emozionala garatzen du.

☐☐

8- Besteak eta norbera ondo sentiarazten duten ongizate-egoerak sortzen ditu.

☐☐

2.2. Gogoratu enpatia praktikatu duzun zure bizitzako uneren bat. Ondoren, partekatu esperientzia zure ikaskideekin.



III. Ea jakiten duzun!

Gaitasun desberdinak dituzten pertsonez ari garenean, "Dibertsitate funtzionala" da gaur egun bizi garen mundura ondoen egokitzen den terminoa.

Mundu anitz eta plural honetan, non norberaren eta ingurukoen desberdintasunak ikasteko eta garatzeko aukera gisa ulertzen diren.

"Dibertsitate funtzionala" terminoa erabiltzen dugunean, alde batera uzten ditugu "desgaitasuna" edo "elbarria" bezalako hitzek zituzten konnotazio negatiboak. Horiek duela urte batzuk erabiltzen ziren, gizarteak oraindik beste aniztasun batzuek (kultura-aniztasuna, hizkuntza-aniztasuna edo sexu-aniztasuna, esaterako) duten aberastasunean fokurik jartzen ez zuenean.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, "desgaitasuna" pertsonen mugak azpimarratzen dituen hitza da; pertsona bat zerbait egiteko gai ez dela adierazten du. Horregatik hobe da ez erabiltzea.

Horrela, horren ordez "Dibertsitate Funtzionala" esamoldea erabiltzen badugu, zenbait pertsonak gaitasun desberdinak eta/edo gauzak egiteko modu desberdinak dituztela esan nahiko dugu. Eraitza berberak lortzeko beste modu batez ari gara.

Eta horrek, gainera, erresilientzia, sendotasun eta sormen handia dakar berekin, Dibertsitate Funtzionala duten pertsonen egunero erakusten duten bezala.

Beraz, Dibertsitate Funtzionala duen pertsona batekin zaudenean, ziur egon pertsona indartsua dela eta beragandik gauza asko ikas ditzakezula.

Ba al zenekien, adibidez, mugikortasun urriko pertsonen oztopo arkitektoniko ugari izaten dituztela egunero?
Mundua ez dagoela batere prest bere beharretarako?
Egunero ahalegin handia egin behar dela gainerakoentzat ahaleginik eskatzen ez duten gauzak egiteko?

Hala eta guztiz ere, autobusak hartzen dituzte, eskoletara joaten dira, aisialdiko jardueretan parte hartzen dute eta gogor lan egiten dute bizitzako une bakoitzean, gainerakoek aukera berberekin gozatzeko.

Eskubide berberak dituzten arren, askotan ezin dituzte erabili, mundua ez dagoelako aniztasunetara egokituta. Bidezkoa iruditzen zaizu?



Hala ere, BSR edo gurpildun aulkiko saskibaloia bezalako kirolak egin ditzakete. Laster jakingo duzu gehiago ariketa honi buruz, punteria, indar handia eta gurpil-aulkia ondo erabiltzea eskatzen ditu adibidez.

Ba al zenekien, gainera, Bilbon badagoela BSR talde bat mutil, neska eta nagusientzat?

1

Zure ustez, zeintzuk dira aniztasun funtzional motorea duten pertsonen egunero dituzten zailtasunak?

Egin ezazu zerrenda bat zure egunerokoan egiten dituzun gauzak erreferentziatzat hartuta.

Adib. Igogailurik ez dagoenean, tokietara igo edo jaisteko.



2

Zerrenda hori kontuan hartuta, zer aldaketa proposatuko zenituzke dibertsitate funtzional motorea duten pertsonak gainerako pertsonen eskubide berberak izan ditzaten?



3

Zure egunerokoan, zailtasun edo dibertsitate funtzionalen bat duten pertsonei laguntzen diezu? Nola?



IV. GUREKIN PRAKTIKATZEN HAUSARTZEN ZARA?



Hurrengo bi saioetan BSR, gurpildun aulkiko saskibaloia praktikatuko dugu. Jatorrizko homologoarekin antz handienetakoa duen kiroletako bat da, baita jarraituenetako bat ere.

Gure Bizkaiko taldeak Bidaideak Bilbao BSR du izena. Arrakasta handia lortu dute eta neska-mutil bikainen eskola bat dute, Bilbao BSR Eskola, urte batzuen buruan erreleboa hartuko dutena eta ziurrenik Espainiako eta Europako txapelketetan garaipenak lortzen jarraituz.

bilbaobsreskola



GURPIL

gainean



**"JENDE TXIKI ASKOK, LEKU TXIKIETAN,
GAUZA TXIKIAK EGINEZ, MUNDUA ALDA
DEZAKE"**

Eduardo Galeano



GURPIL

gainean



ENPATIA ETA KIROL EGOKITUARI BURUZKO PROIEKTUA

IRAKASLEENTZAKO MATERIALA

WWW.BILBAOBSRFUNDAZIOA.COM



JUSTIFIKAZIOA

Ikasleak dibertsitate funtzionalaren inguruan sentibilizatzea garatu nahi da, batez ere aniztasun funtzional motorraren kasuan.


Integrazioaren, lankidetzaren eta bizikidetzaren balioak azpimarratzen dira, enpatiari garrantzia emanaz, horrela aniztasunak, pertsona aberasten eta garapen pertsonalean nola eragiten duen ulertzeko .

Eskola ingurunean bullying kasuak gutxitzen lagundu nahi dugu, baita hezkuntza eremua gainditzen ere, maila sozial eta globalean ere eragin positiboa lortzeko helburuarekin.

HELBURUAK

- 1.-Enpatiaren kontzeptua definitzea.
- 2.-Enpatiaren onurak sustatzea, bai banaka, bai sozialki.
- 3.-Dibertsitate Funtzionalaren kontzeptua definitzea, Dibertsitate Funtzional Motorea azpimarratuz.
- 4.-Dibertsitate Funtzionalaren inguruko aurreiritziak aztertu eta berregitea.
- 5.-Aniztasun funtzionalaren errealitatea ikasleei hurbiltzea enpatiaren bidez, azken hori indartuz.
- 6.-Kirol egokitua, bereziki BSR, ezagutzera ematea, dibertsitate funtzionalik gabeko ikasleek tailer espezifikoetan parte hartuz.
- 7.-Gurpil-aulkiaren eta beste gailu batzuen erabilera modu positiboan azpimarratzea

EDUKIAK



Kontzeptuak

- Enpatia.
- Dibertsitate funtzionala eta dibertsitate funtzional motorra.
- Kirol egokitua: BSR (Gurpildun aulkiko saskibaloia).


Prozedurak

Ikasgelako hurbilketa teoriko-praktikoa honako kontzeptu hauetara:

- Enpatia kontzeptuaren inguruko ariketak.
- Dibertsitate funtzionalari buruzko hausnarketa.
- Mugimendu-dibertsitate funtzionala.
- Kirol egokituaren ezagupena.
- BSR (Gurpil-aulkiko saskibaloia).

BSR (gurpil-aulkiko saskibaloia) dinamiketan parte hartzea.

Dibertsitate funtzionala simulatzen duten jolasekin esperimentatzea.



Jarrerak

- Besteekiko enpatia jarrera; horrek, gainera, errespetua eta tolerantzia eskatzen ditu.
- Dibertsitate funtzionalari buruzko sentsibilizazioa.
- Kirol egokituaren eta kirola egiten dutenen balorazio positiboa.
- BSR eskakizun fisiko handiko kirol gisa baloratzea.





EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Gelan garatzen diren jardueretan aktiboki parte hartzen du.
- Jarrera enpatikoak eta elkarlanekoak erakusten ditu ikasgelan garatzen diren jardueretan.
- BSR (gurpil-aulkiko saskibaloia) jardueretan aktiboki parte hartzen du.
- Jarrera enpatikoak eta lankidetzakoak erakusten ditu BSRko jardueretan (gurpil-aulkiko saskibaloia).
- Ea laguntzen duen ikaskideekin dibertsitate funtzionala simulatzen den jolasetan.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Gelan garatzen diren jardueretan aktiboki parte hartzen du.
- Jarrera enpatikoak eta elkarlanekoak erakusten ditu ikasgelan garatzen diren jardueretan.
- BSR (gurpil-aulkiko saskibaloia) jardueretan aktiboki parte hartzen du.
- Jarrera enpatikoak eta lankidetzakoak erakusten ditu BSRko jardueretan (gurpil-aulkiko saskibaloia).
- Ea laguntzen duen ikaskideekin dibertsitate funtzionala simulatzen den jolasetan.



IKASTAROAK

DBHko 1. eta 2. mailak. Klase bat aldi bakoitzean.

DENBORALIZAZIOA

2 saio ikasgelan eta 2 saio dibertsitate funtzionala simulatzen duten jolasetan eta saskibaloian aritzeko.




Jarduera hau talde txikietan egingo da.
Ikasleek segundo batzuetan hurrengo bineta behatu behar dute.

Segundo batzuk utziko zaizkie, harekin batera doazen galderei buruz ahoz hausnartzeko, eta, ondoren, gogoeta zabalduko zaie ikasgela osoari.

I. NIRE ZAPATAK UZTEN DIZKIZUT


II. Ahoz deskribatu ezazu bineta honetan agertzen den eszena.



III. Zer uste duzu sentitzen duela haurrak momentu horretan?

Ikasleek binetako haurra enpatia sentitzen ari dela ondorioztatu ondoren, denen artean kontzeptu horretarako definizio bat eraikitzen saiatuko dira.

Ondoren, idatzi dutena hiztegiko definizioarekin alderatuko dute, eta azken hori dagokion lekuan idatziko dute.




1.3. Guztion artean eraikiko dugu "enpatiaren" definizioa!
"Enpatia" definitu ezazu:

1.4. Jarraian, bilatu "enpatiaren" definizio zehatza hiztegian eta konpara ezazu idatzi berri duzunarekin

- Hiztegian agertzen den "enpatia"ren definizioa:

Amaitzeko, irakasleek enpatiari buruzko aipamen batzuk irakurriko dituzte ikasleekin. Aipamenak banaka aztertuko dira, enpatia ikaskuntzak lortzeko helburuarekin.


lantzeko



Orain, enpatiari buruzko zenbait aipamen irakurri eta komentatuko ditugu:

- «Ez zait gizon hori gustatzen. Hobeto ezagutu behar dut».
Abraham Lincoln
- «Munduko miserien eta gaizki-
ulertuen hiru laurdenak
amaitu egingo lirateke
pertsonek aurkarien
oinetakoetan jarriko balira
eta haien ikuspuntua ulertuko
balute».
Mahatma Gandhi
- «Beste baten azalean
egaten ikastea, bere begien
bidez ikusten ikastea,
horrela hasten da bakea.
Eta zure esku dago hori
gertatzea».
Barack Obama
- «Bestiaren lekuan jartzeko
gaitasuna adimenaren funtzio
garantziatsuenetako bat da.
Gizakiaren heldutasun-maila
erakusten du».
A. Cury

Ikasleek erantzun zuzena markatu behar dute honako test honetan. Ondoren, irakasleek ikasleekin zuzenduko dute:



II. ZER DAKIZU

ENPATIARI BURUZ?

2.1. Adierazi baieztapen hauek egiazkoak edo gezurrezkoak diren. Azaldu erantzunak ikaskideekin.

Empatia praktika ezazu...

	EGIA	GEZURRA
1- Besteak hobeto ulertzen laguntzen digu .	☐	☐
2- Gatazkak konpontzeak okerrera egiten du.	☐	☐
3- Lagun hurkoa gehiago epaitzea eragiten du.	☐	☐
4- Beste mundu eta ikuspuntu batzuk ezagutzeko aukera ematen digu.	☐	☐



Empatia praktika ezazu...



EGIA

GEZURRA

5- Gure autoestimua hobetu dezake.

☐☐

6- Giro negatiboa indartzen du.

☐☐

7- Gure adimen emozionala garatzen du.

☐☐

8- Besteak eta norbera ondo sentiarazten duten
ongizate-egoerak sortzen ditu.

☐☐

2.2. Gogoratu enpatia praktikatu duzun zure bizitzako uneren bat. Ondoren, partekatu esperientzia zure ikaskideekin.



Ikasleek testu hau irakurriko dute, eta,
ondoren, honako galdera hauei erantzungo diete:

III. Ea jakiten duzun!

Gaitasun desberdinak dituzten pertsonez ari garenean, "Dibertsitate funtzionala" da gaur egun bizi garen mundura ondoen egokitzen den terminoa.

Mundu anitz eta plural honetan, non norberaren eta ingurukoaren desberdintasunak ikasteko eta garatzeko aukera gisa ulertzen diren.

"Dibertsitate funtzionala" terminoa erabiltzen dugunean, alde batera uzten ditugu "desgaitasuna" edo "elbarria" bezalako hitzek zituzten konnotazio negatiboak. Horiek duela urte batzuk erabiltzen ziren, gizarteak oraindik beste aniztasun batzuek (kultura-aniztasuna, hizkuntza-aniztasuna edo sexu-aniztasuna, esaterako) duten aberastasunean fokurik jartzen ez zuenean.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, "desgaitasuna" pertsonen mugak azpimarratzen dituen hitza da; pertsona bat zerbait egiteko gai ez dela adierazten du. Horregatik hobe da ez erabiltzea.

Horrela, horren ordez "Dibertsitate Funtzionala" esamoldea erabiltzen badugu, zenbait pertsonak gaitasun desberdinak eta/edo gauzak egiteko modu desberdinak dituztela esan nahiko dugu. Eraitza berberak lortzeko beste modu batez ari gara.

Eta horrek, gainera, erresilientzia, sendotasun eta sormen handia dakar berekin, Dibertsitate Funtzionala duten pertsonak egunero erakusten duten bezala.

Beraz, Dibertsitate Funtzionala duen pertsona batekin zaudenean, ziur egon pertsona indartsua dela eta beragandik gauza asko ikas ditzakezula.

Ba al zenekien, adibidez, mugikortasun urriko pertsonak oztopo arkitektoniko ugari izaten dituztela egunero? Mundua ez dagoela batere prest bere beharretarako? Egunero ahalegin handia egin behar dela gainerakoentzat ahaleginik eskatzen ez duten gauzak egiteko?

Hala eta guztiz ere, autobusak hartzen dituzte, eskoletara joaten dira, aisialdiko jardueretan parte hartzen dute eta gogor lan egiten dute bizitzako une bakoitzean, gainerakoen aukera berberekin gozatzeko.



1

Zure ustez, zeintzuk dira aniztasun funtzional motorea duten pertsonen egunero dituzten zailtasunak?
Egin ezazu zerrenda bat zure egunerokoan egiten dituzun gauzak erreferentziatzat hartuta.



Ah! Egokiturik ez dagoenean, tokietara igo edo jaisteko.



2

Zerrenda hori kontuan hartuta, zer aldaketa
proposatuko zenituzke dibertsitate funtzional
motorea duten pertsonen gainerako pertsonen
eskubide berberak izan ditzaten?



3

Zure egunerokoan, zailtasun edo
dibertsitate funtzionalen bat duten pertsonen
laguntzen diezu? Nola?



IV. GUREKIN PRAKTIKATZEN HAUSARTZEN ZARA?




Hurrengo bi saioetan BSR, gorpildun aulkiko saskibaloia praktikatuko dugu. Jatorrizko homologoarekin antz handienetakoa duen kiroletako bat da, baita jarraituenetakoa bat ere.

Gure Bizkaiko taldeak Bidaideak Bilbao BSR du izena. Arrakasta handia lortu dute eta neska-mutil bikainen eskola bat dute, Bilbao BSR Eskola, urte batzuen buruan erreleboa hartuko dutena eta ziurrenik Espainiako eta Europako txapelketetan garaipenak lortzen jarraituz.

 bilbaobreskola

BSR SAIO PRAKTIKOAK



Unitate didaktikoaren zati honetan, ikasleak aniztasun funtzional motorrera hurbiltzea nahi dugu, bere dimentsio praktikoenean.

Bilbao BSR Fundazioko kideek zuen ikastetxea bisitatuko dute, kirol egokituaren eta, zehazki, gurpildun aulkiko saskibaloia inguruko tailer bat garatzeko helburuarekin.

Kontzientziazioa ere landuko da, dibertsitate funtzionala simulatzen duten jokoen bidez.

Klasea bi taldetan banatuko da, ondoren jarduerak elkartrukatzeko:

1go taldea

1go taldeko kideek hainbat jarduera egingo dituzte gurpil-aulkiarekin:

BSRren sarrera teoriko laburra.

Gurpil-aulkia erabiltzen ikasteko dinamikak.

BSR praktika (gurpil-aulkiko saskibaloia).

2. taldea

2. taldeko kideek dibertsitate funtzionala simulatzen duten joko-dinamiketan parte hartuko dute.

Jolas bakoitza amaitutakoan, parte-hartzaileen sentrazioak partekatuko dira.

Hauek dira praktikatuko diren jolasetako batzuk:

Itsu-gidaria eta itsua

Bikoteka. Bat itsu-gidaria izango da, bestea aldiz itsua.

Jolasa egin behar den lekuko izkina batean objektu bat jartzen da lehendabizi, eta itsu-gidariak, hitzik egin gabe, soinuekin bakarrik, itsua gidatu behar du. Hori errazteko, bikoteak soinu osatutako koderen bat hitzartu dezake, hobeto gidatzeko.

Iristeko denbora kronometratu egiten da. Azkarren iristen den bikoteak irabaziko du.



Trena

Bi talde egiten dira eta denek begiak estaltzen dituzte, makinistak izan ezik, hau da, besteak gidatzen dituenak.

Bata bestearen atzean ilaran jartzen dira, eta makinistak trenaren erreia izango litzatekeen lerro batetik gidatzen saiatu behar du.

Lehenago erreiaaren amaierara iristen den tren-taldeak irabazten du.






Makilak

Bikoteka.

Bikoteko batek alde batean eta besteak bestean, makilen soinuaz bakarrik baliatuz gidatu beharko dute elkar.

Elkar aurkitu behar dute.





Musuzapia

Ikasleak bi taldetan banatuko dira, eta erdi zapiari eusten dion pertsona jarriko da.

Bi taldeetan, pertsona bakoitzari zenbaki bat esleitzen zaio.

Joko honek aldaera indibidual bat du, baita aldaera kooperatibo bat ere, koordinatzaileak esaten duen zenbaki kopuruaren arabera.

Zenbaki bakar bat esaten bada, ibilbidea hanka herrena erabiliz egin behar du.

Bi zenbaki esaten badira berriz, eskorga eginez joan behar dute zapiaren bila.

GURPIL

gainean



**"JENDE TXIKI ASKOK, LEKU TXIKIETAN,
GAUZA TXIKIAK EGINEZ, MUNDUA ALDA
DEZAKE"**

Eduardo Galeano